

V16 baliza konektatua matxuren edo larrialdien aurre-seinaleztapeneko gailu baliodun bakarra izango da ibilgailuetarako 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Argitu zure segurtasuna

EGIAZTATU
TRAFIKOA.NAFARROA.EUS
WEBGUNEAN MODELO
HOMOLOGATU GUZTIAK



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Tráfico
Navarra

Nafarroako
Trafikoa

NAVARRA † **NAFARROA**


Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Zer jakin behar duzun...




Triangeluak ordeztzen ditu

Urtarrilaren 1etik aurrera nahitaezkoa izango da V16 baliza konektatua eramatea osagarri moduan automobiletan, ibilgailu mistoetan, salgaiak garraiatzekoetan eta autobusetan. Ikuspen maximoa ahalbidetzen du, eta zure geolokalizazioa jakinarazten dio DGT 3.0 plataformari.




Egiaztatu homologatuta dagoela

Balizak barne hartu behar ditu GPS txipa eta ateragarria ez den SIM txartela. Konektibitatea ziurtatuta egongo da 12 urtez, kostu gehigarriarik gabe. **Kontsultatu modelo homologatu guztiak hemen:** dgt.es/v16.



Non eraman behar duzun

Beti eskura, adibidez, eskularrukaxan, txaleko islatzailea bezala. Ziurta ezazu kargatuta dagoela, dela bateriarekin, dela pilekin. Gogoan izan ordezeko gorpila edo ordezeko sistema ere eraman behar duzula.



Matxura gertatzen bada...


Gidatzen jarraitu ahal baduzu, utzi ahalik eta azkarrena zirkulazio-erreiak eta joan aurreneko irteerara. Ezin baduzu jarraitu gidatzen, gelditu ibilgailua eskuineko bazterbidean edo enbarazu gutxien egiten duen tokian. **Piztu baliza eta kokatu sabaian, eskua heltzen den tokian eta ibilgailutik atera gabe.** Aktibatu larrialdietako argiak eta, irtetea segurua dela uste baduzu, jantzi txalekoa.



Balizak zer ez duen egiten

- ✗ Ez du abisurik bidaltzen 112ra
- ✗ Ez dio abisurik bidaltzen aseguruari

Gertatutakoaren arabera, zuk zeuk deitu beharko duzu 112ra (larrialdiak) edo aseguru-etxera (garabia besterik ez baduzu behar). **V16 baliza konektatuak kokapen zehatza besterik ez du transmititzen, bideko ezbeharrak ekiditeko.** Ez du biltzen ez eta bidaltzen ere informazio pertsonalik ez eta zure ibilgailuaren informaziorik.



Balioduna Espainiatik kanpo

Espainian matrikulatutako ibilgailu guztiek, beste herrialde batean badabiltza, legez erabil dezakete V16 baliza konektatua. **Ez da beharrezkoa larrialdietarako triangeluak eramatea.** Halaber, beste herrialde batzuetan matrikulatutako ibilgailuek, Espainian badabiltza, matrikulatuta dauden herrialdeko xedapenak bete behar dituzte.

